



72 Zka. IRAILA 2018 SEPTIEMBRE N° 72

Urriaren 2an, Elkargoak Gizarte Hezkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zuen Bilborocken "Osasunerako Gizarte Heziketa" jardunaldia antolatuta.

Bertan hitz egin zutenek hasiera batean osasun kontzeptua ikuspegi biopsi-kosoziala oinarri hartuta definitu zuten, gaixotasun ezaren kontzeptua utzi eta ongizatea hartuz eta, alderdi hauetan, gizarte eta hezkuntzako helburuek badute zeresanik pertsonen, eta zehatzago esateko pertsona kalteberen, bizi-kalitateari dagokionez.

Parte hartu zuten gizarte hezitzaileek kalteberatasun edo zaurgarritasun fisikoa eta sozial handia duten pertsonekin egiten dute lan, eta adierazi zuten lanbidea haiekin bilakatzen joan dela pertsonen ongizatearen bilaketan, eta horretan hasteko gizabanakoaren beharrian eta nahiak errespetatu behar direla ere adierazi zuten. Eta, esan zutenek, gizarte heziketak baliabide ugari ditu arlo horretarako.

Oraindik ere beharrezkoa da esku-hartze aukeretan mugatzen gaituzten alderdi eta estereotipoak birplanteatzea, adinekoei buruz hitz egitean adierazi zen bezala.

Harremanak, beste profesional batzuekikoa, gizarte heziketako profesionalen artekoa, gizarte esku-hartzeko beste arlo batzuekiko eta osasun zerbitzuetako profesionalakikoa elkar-ezagutzarako ezinbestekoa izango da, eta erabilgarria, gure lanaren xede direnentzat.

## GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



2 DE OCTUBRE

Educación Social:  
Dignidad y Derecho  
de la Ciudadanía.



Aurten, urriaren 2an ospatutako Gizarte Hezkuntzaren Nazioarteko Eguneko ekintzak Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiarekin (CGCEES) batera antolatutakoa, 2 lurralde eta hiritan gauzatu dira: [Valentziako Erkidegoan \(Valentzia\)](#) eta [Gaztela Mantxan \(Toledo\)](#) eta bertako bi elkargoak izan dira antolatzaileak. Kontseiluak aurten lema hau erabili zuen: **Gizarte Hezkuntza: Herritarren duintasuna eta eskubi-dea.**

Toledoko jardunaldian [IV Toni Julià Oroimenezkoko](#) banakako sariak, taldekakoak eta accesitak banatu ziren. Bestalde, V Toni Julià Oroimenezkoren aurkezpena egin zen, une honetan hasi eta 2019ko martxoan amaituko diren gizarte eta hezkuntza programekin lotutako banakako eta taldekako lanak jasotzeko.

[Kontseiluak jakinarazpen](#) bat argitaratu du Gizarte Hezkuntzaren eguna baliatuz, seniderik gabe iristen ari diren adingabekoei arreta egokia ez emateagatik eratorritako arazoak direla eta; eta erantzun egoki bat exijitu da, bai egoera horrentzat bai material eta metodologia aldetiko baliabideen benetako garapen batentzat ere

**GHEE-CESPVREN BERRIAK**

**Etika eta Deontologia Batzordeak** uztailan, irailan eta urrian bilera bana egin du.

**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren garapenaren jarraipena egiteko Batzordeak** urrian koordinazio bilera bat egin du.

**2018/09/29an Etika eta Deontologiaa Batzordeak** "V. Etika eta Deontologia Prestakuntza ekintza "Erakundeen Deontologia"ri buruzko saioa antolatu du.

**2018/09/27tik 10/09ra Pedagogia Sistemika Tailerra** antolatu du Elkargoak Donostian. 7 lagun parte hartu dute.

**2018/28/09tik 10/06ra "Kontrol Fisiko eta psikikoa. Deontologiaren Perspektiba"** antolatu du Elkargoak Bizkaian. 13 pertsona parte hartu dute.

**2018/10/02an Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Eguna #EDUSODAY2018** Elkargoak Bilborocken "Osasunerako Gizarte Hezkuntza" jardunaldia antolatu du.

**2018/10/04tik 10/11ra "Genero, seximo eta nerabe eta gazteen arteko harremanak"** prestakuntza antolatu du. 12 lagun parte hartu dute.

**2018/10/23an Gobernantza Publiko eta Autogobernuko** aholkulari juridikoarekin elkarrekita eskatutako Estatutuen aldaketari buruzkoa.

## LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

### FAMILIEKIN GIZARTE ETA HEZIKETA ESKU-HARTZEARI ETA BITARTEKARITZARI BURUZKO HAUSNARKETAK

Artikulu honen helburua da famili bitartekaritza eta gizarte hezkuntza famili esku-hartzearekin konparatzea, hurbiltzen dituzten eta urruntzen dituzten alderdiak balioetsiz.

Horretarako, lehenik eta behin, bitartekaritza kontzeptura hurbilduko gara. Ukaezina da bitartekaritza terminoa modan dagoela bolada honetan. Komunikazioan oinarrituta gatazkak modu baketsuan konpontzeko epaiketaz kanpoko eta borondatezko prozedura dela esan genezake; honen bidez, aldeak hirugarren alderdi neutral batekin biltzen dira, bitartekariarekin, lankidetzara eta elkarrekiko errespetuzko giro batean, gatazkak konpontzeko xedez.

Jarduera hau AEBetan sortu zen eta Europara, zehatzago esateko Britainia Handira, 70eko hamarkada hasieran iritsi zen. Hala ere, Espainiara ez zen 1990 arte iritsi, eta orduan jarri zen abian "Banantze eta dibortziorako bitartekaritza programa".

1996an, Bilbon, Eusko Jaurlaritzako famili bitartekaritzako lehenengo zerbitzua jarri zen abian, baina hainbat autonomi erkidegotako bitartekaritza legeak eta 15/2005 legea aldarrikatu zirenean hartu zuen behin betiko indarra famili bitartekaritzak epaiketaz kanpoko aukera gisa.

Bitartekaritza zerbitzuaren kudeaketa publikoa zein pribatua izan daiteke. Alor publikoan, alde batetik, auzitegi barruko bitartekaritza edo bitartekaritza judiziala dugu, adingabeak karguan dituzuen bikoteen banantze eta dibortzio kasu judizializatuetan doanik erantzuna emateko. Bestalde, famili bitartekaritzako zerbitzua. Borondatezko eta doako zerbitzu bat da hau, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak familia gatazka batean murgilduta dauden pertsonen esku jartzen duena. Gatazka hori bikotea apurtzeagatik (ezkontideak edo izatezko bikoteak) edo familia giroan sortu eta legean jasotako beste inguruabar batengatik sortua izan daiteke. Zerbitzu hauek gizarte eta psikologia arloko eta arlo judizialeko espezialistek emango dute.

**Helburuen** hasierako planteamendutik alde nabarmenak aurki ditzakegu bien artean. Famili Bitartekaritzaren (FB) helburua gatazka bati amaiera ematea da eta hasierako konkapenak azaleratzen, interesak zein diren asmatzen eta euren arteko komunikazio bideak zabaltzeko aukerak aztertzen saiatuko dira. Horretarako, famili gatazka egoera horiei irtenbide egokiak ematen laguntzeko prozedurak emango zaizkie. Gizarte Hezkuntzak (GH) guraso eta legezko tutoreak gaitu asmo ditu, hauek era autonomoan kargura dituzten adingabeen beharrezko erantzuna emateko. Beraz, prozesu konplexuagoa da, jorratu beharrekoa, bai maila pertsonalean, bai famili mailan.

Bereizten gaituen beste alderdi bat da gatazkaren gaineko **kontzientzia maila** eta hurren konponketa aukera, zein ikusgarriagoa egiten baita FBn. Aldeek badakite zer eragiten dien liskar horrek eta konpondu egin nahi dute. *GHn, askotan, kanpoko eragile batengatik egiten da esku-hartzea*. Oro har, arazoaren/zailtasunaren kontzientzia oso txikia da, eta beharrezkoa egiten da jatorrizko eskaria birformulatzea, eta, horretaz gain, eguneroko errealitatea aldatze aldera, zerbitzuaren formulazioa egitea.

## LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

Bitartekaritzan nahiz gizarte eta hezkuntza esku-hartzean, prozesuek **denbora** behar dute barneratzeko, parte-hartzaileek sentitzen dutena zer den jakiteko, pausatzen uzteko eta prozesuan zehar gertatzen den guztia interpretatzeko.

Hori da famili Bitartekaritzaren plangintzaren eta hezitzailearen arteko ezberdintasun handiena. Lehenengo kasuan, problematikaren arabera programatzen dira saioak, eta, gehienetan, ez dira 10 baino gehiago izaten. Gizarte eta hezkuntza esku-hartzean, berriz, iraupeneko lasterketa bat planteatzen da, familiaren ondoan hainbat urtetan lan egitera eramaten gaituena.

Famili Bitartekaritzak saio estandarizatu eta denboran mugatutako batzuez osatutako protokoloa du oinarrian, eta horrek mugatu egiten du zerbitzuarekiko atxikimendua landu ahal izatea. Familietan esku-hartzen duen Gizarte Hezkuntzan, eskema egituratu batetik (testuinguruan jarri, loturak, esku-hartzea, autonomia, agurra eta ixtea) abiatzen bada ere, kasuistika hain da zabala, non hezitzaileak egokitu egin behar duen eta epeak malgutu, partekatutako helburu horiek lortuko badira. Segurtasunezko lotura hori ezinbesteko baldintza izango da denborak aurrera egin ahala aldaketa iraunkorrak lortzeko.

**Laneko testuinguruari** dagokionez, desberdina da. Bezeroak "kontsultara" ekarri duen gatazka konpontzea izango da bitartekariaren lana. Ez dago administrazio-egiturarik judizialki onargarria den eta lor daitezkeen adostasunen margena mugatzen duenetik haratago. Hori bai, beti ere bitartekaritzaren oinarritzko printzipioetako bat betetzen ez bada, hots, botere oreka. Gizarte Hezkuntzaren lana abenduaren 23ko 3/2009 Legeak, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoa onartzen dituenak, ezarritakoan oinarritzen da eta adingabearen interes gorenak da agintzen duena, edozein akordioaren gaitetik.

Gizarte Hezkuntzan **Taldea** da hezitzailearen euskarria, eta esku-hartzearena berarena ere bai. Taldea erreferentzi izan daiteke erabakiak hartzeko garaian, kasua ikuskatzean eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen arduraduna den profesionalaren lanean, eta protagonismo handiagoa du Famili Bitartekaritzan baino; izan ere, azken honetan, Taldea diziplina arteko kontsulta edo erkatze organo gisa erabili ohi da. Famili Bitartekaritzan erreferentziazko profesional bakar batekin egiten da lan. Gizarte Hezkuntzan, berriz, askotan Taldeak ezartzen du hainbat hezitzailearen esku-hartze anizkoitza (gurasoen arteko gatazkak, guraso eta seme-alaben arteko harreman/emozio arrakala, etxe funtzionalak, e.a.).

Esan genezake bietan egiten dugula lan nolabaiteko **boluntariotasunez**; izan ere, lehenengoan, gatazkak dauden alderdiak epaitegiak aholkatuta datoz edo hori da aukeratzen duten bidea, merkeena delako; gizarte-hezkuntzan, boluntariotasun hori gizarte laguntzak galtzeko beldurrak baldintzatuta dago, lankidetzaz ezagatik administrazioak jar diezazkiekeen zigorrerengatik edo, batzuetan, adingabeen tutoretza galtzeko arriskuagatik.

**Konfidetzialtasuna** bitartekaritzaren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat da. Horrek esan nahi du prozesuan esaten den guztia isilpean gorde behar dela bitartekaritzatik kanpoko hirugarren guztientzat. Gizarte Hezkuntzan, balio handikoa bada ere, adingabearen goreneko interesaren eta honen babesaren alde egin behar da eta, hori bermatzeko, informazioa beste baliabide batzuetara ere eramango da, egoki irizten bazaio.

**LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA****Amaierako hausnarketk:**

*Famili Bitartekaritza eta Gizarte Hezkuntza ez dira bata bestearikiko baztertzailleak. Horietako bakoitza erantzun eragingarriena izan daiteke konpondu nahi den gatazkaren ezauzgarrien arabera.*

*Biak ere metodologia desberdinak planteatzen dituzte, baina helburu berberak izan ditzakete, hala famili barreneko gatazkei erantzuna ematea nola komunikazio bideak hobetzen laguntzea, besteak beste.*

*Bitartekaritza baliabide merkeagoa da sistema judiziala desblokeatzeko eta epaiak behin eta berriz ez-betetzeak sistema judizialari, eta beraz gizarteari, eragiten dizkion kargak saihesteko.*

*Famili bitartekaritza kanpo geratzen dira bikotekide, seme-alaba edo famili unitateko kideren baten kontrako indarkeria edo tratu txarrak dauden kasuak.*

*Hezitzaileak izan beharko du bitartekaritzari –bere adieraz guztietan- buruzko ezagupen teoriko eta metodologikoa. Hala ere, interesgarria litzateke ikustea zenbateraino dagoen trebatua eta, beharrezkoa balitz, egoera hauei aurre egiteko prestakuntza jasotzea.*

*Bi diziplinetako batek ere ezin die famili problematika guztiei erantzuna eman. Horietako bakoitza identifikatu beharko da eta dagokion baliabidera bideratu, beharrezkoa izango balitz.*

*Bitartekaritza hezkuntza tresna bat da, giza harreman orotan sar daitezkeen gatazkei demokratikoki aurre egiteko ez ezik bizikidetzaren kultura eratzen joateko ere baliagarri dena.*

*Egungo gizarteak aurrera egin behar du eta beste baliabide batzuk sortu gatazkak konpontzeko lanean. Gatazkaren aldean arteko lankidetzak irtenbide hobeak eta sortzaileagoak ahalbidetzen ditu. Negoziazioa edo bitartekaritza izan beharko lirateke arazoaren konponketa arruntenak; ezohikoa izan beharko litzateke liskarra.*

**Bittor Fernandez**  
**1309 Elkargokide Zbk**



[Pacto Vasco por la Familia y la Infancia](#) *Familia eta Haurtzaroaren aldeko eus-ka lituna.*

Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2018, 24, 24 p.

Este Pacto responde al compromiso adoptado por el Gobierno Vasco en su programa de Gobierno para la XI

Legislatura Euskadi 2020, que establece entre sus Objetivos de País el de aumentar la natalidad e incrementar las ayudas a familias con hijos e hijas. El Programa de Gobierno señala al respecto que "Euskadi, como gran parte de la sociedad europea, tiene el reto de desarrollar políticas de carácter social y demográfico que afronten el progresivo envejecimiento de la sociedad y la necesidad de fomentar la natalidad. A este respecto, la atención a las personas mayores, especialmente en estado de dependencia, y las políticas de apoyo a las familias y a la infancia, constituyen dos pilares fundamentales de las políticas sociales".



[El instrumento BAILORA para la valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo y desamparo infantil: elaboración, implantación, fundamentos conceptuales y contenido.](#)

Ignacia Arruabarrena, Miguel Ángel Hurtado. Zerbitzuak 66.2018



REVISTA DE EDUCACIÓN SOCIAL


El número 27, ["Educación Social y Acción Socioeducativa con personas de nueva llegada"](#)

- Próximo número [Educación Social, medio ambiente y sostenibilidad](#) Enviar propuestas según indicaciones antes del 15 de diciembre de



[Haurren sexu-abusua. Gizarte Osoa interpelatzen duen errealite konplexua.](#)

Arartekoak Giza-eskubideei buruzko Jardunaldiak Bilduman 2018ko uztaileko UPV/EHUko Udako Ikastaroan, berak antolatutakoa, aurkesatutako ponentziak argitaratu ditu.



[Envejecimiento activo, programas intergeneracionales y educación social](#)

Martínez de Miguel, A., et al. (eds.) Madrid, Dykinson, 2017, 214 p.

Este libro habla de envejecimiento activo, de su relación con los programas intergeneracionales, de la promoción comunitaria y de la construcción de una ciudadanía activa y participativa con las personas mayores. Al mismo tiempo, hace una selección de buenas prácticas, en el trabajo con este colectivo, directamente relacionadas con experiencias, proyectos y programas intergeneracionales, teniendo como soporte la teoría y praxis de la Educación Social.

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.**